


5. GEOIBILBIDEA

EZKUTUKO  
HARANA

**OLATZ**

#GEOPARKEA

OLATZ GEOIBILBIDEA  
INFORMAZIO PRAKTIKOA  
PR Gi-47




IRAUPENA

**2 h**




DISTANTZIA

**6,5 km**




DESNIBELA

**+290 m**  
**-290 m**



ZIRKULARRA

**BAI**



[geoparkea.eus](http://geoparkea.eus)



#GEOPARKEA



**((112))**

SOS DEIAK

# OLATZ GEOIBILBIDEA NOLA IRITSI?

[Ikusi Google Maps-en](#)

**Abiapuntua:** San Isidro ermita, Olatz auzoa.


**Gertuen dagoen herria:** Mutriku.


**Koordenatuak:** 43°17'17.0"N 2°24'27.0"W

**Iristeko:** Autoz. Mutriku GI-3562 errepidea hartu, eta Olatz auzora iritsiko gara.



OLATZ GEOIBILBIDEA  
**OLATZ**




  
BIRATU  
PANTAILA

SAKATU ZENBAKIAK IBILBIDEAN  
NABIGATZEKO



## SARRERA

Olatz harana sakonune handi bat da, piramide-formako mendiz inguratua. Urak kareharrian egindako ekintzaren emaitza da. Animatu artez, baserriz eta kareharriz betetako paisaia honetan ibiltzera.




Geoibilbide honek 12 interesgune ditu, eta plaken bidez daude markatuta ibilbidean. Aurkitu plaka horiek, eta gozatu azalpenekin.



# OI

**HARAN ITXI BAT?**





### 01

Erreparatu adi-adi zeure inguruneari. Itsasora irteerarik ez duen **sakonune** batean zaude.

Nola eratu zen? Argibide bat.

Ura.








Kantauriko artadiak



Arnoko Kontserbazio Bereziko Eremua 2013an aitortu zen, bertako **kantauriar artadien** balioa zela eta. **Natura 2000 Sarean** dago eremua (biodibertsitatea kontserbatzeko Europako sare bat).



Arteak ohikoagoak dira **klima mediterraneoagoetan**. Oso zoru eta ur gutxiko eta malda handiko kareharrizko hegaletan kontserbatu dira Gipuzkoan.




**Basurdea** da artadi itxietara ongien egokitutako animalietako bat. Baxuak dira, azkarrak eta oso larruazal gogorrekoak.

Ez geratu zerura begiratu gabe! Han dabil **sai zuria**, goitik zelatan.




02

PIRAMIDE BAT  
OLATZEN



02

**1.** Duela 5 milioi urte inguru, itsas mailaren gainetik hasi ziren geratzen kareharriak, eta disolbatzen hasi ziren atmosferarekin eta lurzoruko landarediarekin kontaktuan azidotzen den euri-urarekin.






**2.** Dolinak gero eta handiagoak egin ziren, eta bat egin zuten. *Polje* izeneko sakonunez betetako paisaia bat eratu zen horrela, eta piramide formako mendiek banatzen zituzten, hala nola Basarte mendiak.



03

SAKONUNE HANDIA



03


Olatzeko erdiko sakonuneak 35 hektarea inguru ditu, eta 250 m inguruko altuera. Apurka-apurka disolbatzen joan diren **87,5 milioi metro kubiko** kareharri dira.





Lapiaza

Prozesuak 5 Mu inguru iraun badu, zenbat higatu da urtean? **0,05 mm/urte**, gutxi gorabehera. Denbora-kontua da guztia.




Dolinak

Arroka disolbatzen du euri-urak, eta lurpean barneratzen da hegaletako **lapiaz arroksuetan** eta haraneko **dolinetan** barrena, inbutu-funtzioa egiten baitute.



## Dolina baten eskema



Gainazaleko ura biltzen duen inbutu baten antzera funtzionatzen dute dolinek.



San Isidro ermitaren atzean dagoen **Kobalde** leizeko sarbegi handitik sartzen da Añoerreka eta Olatzgoikoa erreketako ura, eta Deba ibaian agertzen da, lurpean 3 km-ko ibilbidea egin ondoren.



Olatzeko poljea 10 metro buztinez dago beteta. Disolbatzen ez den kareharrien zatia da, haranaren ondoan metatzen doana. Horiek dira geoparkeko soroak.



**O4**

**KONTUZ! ABERE  
SUHARRAK**



04

**Betizu** esaten zaio ile gorrixka eta itxura biziko behi-arraza autoktonoari. Ia aske bizi dira, eta historiaurreko uro edo zezenaren gertuko senidetzat jotzen dira.



# 05

**ARTE BAKARTIA**





05

Lur hauek artadi mardulez estalita zeuden garaiko oroigarri bat da Korostolako artea. Begiratu adi, **zuhaitza arroka gainean ari baita hazten**. Hori da haren estrategia, Arno mendiko lurzoru karetsu eskeletikoetara egokitzeke.




06

**IRABAÑETA.  
KARSTEKO BASERRIA**



06

**1. Dolina** baten barnean dago baserri hau, haizetik babestua eta laboreentzako lur emankorrekin.



2

**2.** Kareharri puruenez osatutako hegalen emaitza da **lapiaz erdi estali** bat, artadiz estalitako lurzoru gutxikoa. Garai batean, hori izango zen baserriaren egur-despentsa.




3

**3.** Arroka buztintsuagoak dituzten hegaletan ez da egoten lapiarik, eta **lurzoruak** oparoagoak izan ohi dira, bazkaleku gisa baliatzeko.



# 07

**LEHERGAILUA,  
PIKOTXA ETA PALA**



XX. mendean, zenbait **harrobitan** ustiatu da geoparkeko kareharria. Hainbat erabileratarako baliatu da, eraikuntza-materialak, agregakinak eta **arroka apaingarriak** ateratzeko, besteak beste. Gaur egun, gehienak ez dira ustiutzen, eta lan egiten ari da haiek lehengoratzeko.



08

**NORK ZIZELKATU DITU  
KANAL HAUEK?**





Ez dago zalantzarik. Oso arroka gogorra da kareharria, baina gainazaleko urak egin ditu kanal horiek. Zenbat denboran? Milaka urte gutxi batzuetan.



09

**LEIZE BIZIDUNA**



Hartu saihesbidea. Badu zer bait magikoa Jentiletzetak. **Joxe Miel Barandiaranek** aurkitu zuen, 1927an. Irudikatu duela 10.000 urte gizakiak, oreinak, hartzak, ahuntzak eta zenenen bat ere bizi izan zirela leize honetan.



# 010

**ZIÑO A. UNIBERTSO  
BEREZI BAT**




O10

Oso isolatua dagoen baserria da Ziñoa. Olatzekoaren antzeko polje baten barnean dago. Basoa, soroak eta bazkalekuak erabat baldintzitzen ditu bertako geologiak.



# O T T

**GUZTIA ETXEAN**



Ziñoa baserriak aski zuen bere burua, behar zuen ia guztia ekoizteko. Soro, baratz eta abereez gain, Ziñoa baserriak bazituen dolarea, errota, aroztegia, ogilabea eta **karobia**. Joan bertara, eta ulertuko duzu zein garrantzitsua zen karea euskal baserrian.



Era berean, Ziñoa baserrikoa zen Pedro Maria Txurruka **Aritza**, historiako **harri-jasotzaile** onenetako bat. Hemen elkartzen ziren bizilagunak igande goizez, apustuak egiteko. Hemen gordeta daude oraindik haren harriak.





BASKOS.

EL FORZUDO ARITZA DE MOTRICO

CON UNA PIEDRA DE 187 Kgs.

EIBAR 15-III-1925.





# OT12

**EUSKAL BASERRIKO  
KULTURA**




012

Olatzeko poljean gaude berriro ere, baserrien haran ezkutuan. Geologiak leku ezin hobea egin du nekazaritzan jarduteko. Hemen metatu dira urak kareharrian disolbatu ezin izan dituen buztin guztiak.

OLATZ GEOIBILBIDEA  
**INFORMAZIO +**




**IKUSI BESTE  
GEOIBILBIDE  
BATZUK**



**IRTEERA  
GIDATUEN  
PROGRAMA**

[geoparkea.eus](https://geoparkea.eus)



#GEOPARKEA

# Geoparkea

Euskal Kostaldea - Costa Vasca



**Gipuzkoako  
Foru Aldundia**  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



**ETORKIZUNA ORAIN**  
Es futuro



**BABESTUTAKO BIOTOPOA**  
BIOTOPO PROTEGIDO

**DEBA ETA  
ZUMAIA**  
ITSASERTZEKO  
BABESTUTAKO  
BIOTOPOA



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA  
ETA ETXEBIZITZA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,  
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA

**EUSKADI**  
**BASQUE COUNTRY**